

Mondragon Unibertsitateak nazioarteko 250 aditu bilduko ditu ostiralera arte Donostian egingo diren Softwareari eta Datu Baseei buruzko jardunaldietan

2009/09/10

Ø Programazioan hitzaldiak, tutoretzak eta tailerrak daude, eta gaur hasi eta ostiralak 11 arte luzatuko da

Ø Software eta Datu Baseen Ingeniaritzaren XIV. Jardunaldiek Donostiako Miramar Jauregian Espainiako, Portugaleko eta Iberoamerikako ikertzaile eta irakasleak bilduko dituzte

Ø Mondragon Unibertsitatearen Goi Eskola Politeknikoak – EHUrekin lankidetzan- lehen aldiz softwarearen eta datu-baseen ingeniaritzaren eta programazio-lengoaiei eremuko nazioarteko adituen topaketa horiek antolatuko ditu

Ø Software eta Datu Baseen jardunaldiekin batera, Programazioari eta Lengoaiei buruzko Jardunaldien IX. edizioa ere egingo da



Donostia, 2009ko irailaren 9a. Lehen urtea da Mondragon Unibertsitatearen Goi Eskola Politeknikoak Softwareari eta Datu Baseei buruzko nazioarteko jardunaldiak antolatzen dituena. Donostiako udako ikastaroen barruan, datorren ostirala arte, Donostiako Miramar Jauregian Espainia, Portugal eta Iberoamerikako ikertzaile eta irakasleak elkartuko dira softwarearen eta datu-baseen eremuko beren lorpenak, esperientziak eta iritziak partekatzeko, baita programazio-lengoaiei ingurukoak ere.

'Software eta Datu Baseen Ingeniaritzaren Jardunaldien' XIV. edizioak eta 'Programazioari eta Lengoaiei buruzko Jardunaldien' IX. edizioak datorren ostiralera arte 250 aditu bilduko dituzte, ezagutzak trukatzeko eta eztabaidatzeko, esperientziak partekatzeko eta emaitzak dibulgatzeko. Gainera, eremu horietako hainbat sektoreen eta lantaldereen arteko lankidetzak sustatzeko inguru ezin hobea izango dira jardunaldiak.

Mondragon Unibertsitatearen Goi Eskola Politeknikoak jardunaldi horietan SISTEDES-en, Softwarearen Ingeniaritzaren eta Softwarearen Garapenerako Teknologien Elkartearen, babesa izango du. Biltzarrean zehar lau hitzaldi izango dira (nazioarteko hizlarien parte-hartzearekin), Modeloen bitartez Zuzenduriko Ingeniaritzan (MDE Model Driven Engineering), egiaztapen programetan, Streaming Softwarean eta Software Visualization Tools delakoan eginiko aurrerapenei buruzkoak.

Gonbidaturiko hizlariak gain, programazio barruan gai berritzaileei, erremintak erakustaldiak eta argitaraturiko artikulu garrantzitsuei buruzko zazpi tailer daude, baita Modeloen bitartez Zuzenduriko Softwarea garatzeko eta produktu-lerroak aztertzeko Exlipse Erremintei buruzko bi tutoretza ere.

Mondragon Unibertsitateak 10 urtez dihardu, ia sortu zenetik, softwarearen ingeniaritzan lanean, industria-proiektuak garatuz eta eremu horretan ikertuz.